

ZESTOA

AMABIRJINAK 2023



AGURRA

Zestoako Udalak herriko jai nagusietako suziria botatzeko eskaintza eskertzearekin batera, herritarrei nazioarteko euskal pilotaren nondik norakoak azaldu nahi genizkieke.

Mundu mailan, nazioarteko txapelketak antolatzen dituzten bi erakunde daude: CIJB (Pilota Jokoen Nazioarteko Konfederazioa) 1928an sortua eta FIPV (Nazioarteko Euskal Pilota Federazioa) 1929an sortua. CIJB erakundearen, Euskal Pilota selekzioa onartua dago. Ofiziala da 2016tik eta 2017ko eta 2023ko munduko txapelketetan parte hartu dugu gure ikurrina eta ereserkiarekin. Aldiz, FIPVn euskaldunok gure selekzioarekin ezin dugu parte hartu eta beste herrialde bat ordezkatzuz jokatu behar dugu. Beraz, gure izena daraman federazioan ez gaituzte onartzen baina CIJBn bai.

Aurten CIJBk antolatu duen munduko txapelketa Alziran (Valentzian) izan da. Gizonezkoetan lau modalitateetan (Bote luzea, Mahai jokoa, Plaza libre eta Valentziar pilota) jokatu da eta emakumezkoetan, hiru modalitateetan (Mahai jokoa, Plaza libre eta Valentziar pilota).

Emakumezkoetan, hiru modalitateetatik, bitan urrezko domina irabazi dugu eta hirugarrenean berriz brontzezko domina. Gainera, sailkapen orokorrean Euskal Pilota Selektzioa munduko txapeldun izan da. Gizonezkoetan, urrezko domina bat eta zilarrezko beste bat irabazi ditugu. Eta sailkapen orokorrean bigarrenak izan gara.

Bai nesketan, bai mutiletan lortutako urrezko dominak Valentziar pilotan irabazi ditugu. Eta mundiale-rako, modalitate honetarako bertako frontoia egokia izanik, prestakuntzak Arroagoian egin ditugu. Hiru hilabetez, astero-astero, emakumezkoak asteartetan eta gizonezkoak asteazkenetan, hor aritu gara prestatzen. Euria, hotza... eta entrenamenduak eta gero, bertako elkartean patata tortila janaz, guztion arteko hausnarketa: entrenamendua nola joan den, prestaketak nola antolatu, arerioak ikertu, frontoiak aztertu... Eta nola ez, denbora guzti honetan, auzokoen laguntza, babesa eta goxotasuna sentitu ditugu. Hori asko nabaritu dugu eta emaitzak bistan daude, emakumezkoak eta gizonezkoak munduko txapeldunak izan dira!

Kasualitatea? Ez dugu uste: ondo entrenatu izanak, lan asko eginaz, asko sakrifikatuaz eta udal ordezkarien eta auzotarren laguntzaz, emaitza ezin-hobeak lortu ditugu. Gainera Naroa Agirre bertako alaba izan da munduko txapelduna eta munduko pilotaririk onenaren saria irabazi duena, Zestoa berriz ere pilotaren munduko mapan nabarmenduz.

Herriko festa zoriotsuak izan ditzazuela eta mila esker Zestoa, mila esker batez ere Arroa goiko auzotarreri, emandako laguntza, babesa eta azaldu diguzuen maitasunagatik.

Arroagoian entrenatu diren euskal selekzioko 8 pilotariak eta hautatzailea

IRAILAK 2, LARUNBATA. GAZTE EGUNA

11:30 XXXVI. Ondarbasora Igoera. Erdikaetik Ondarbasoraino erlojupeko txirrindulari lasterketa, 16 urtetik gorakoentzat.

Eguerd partean. Zestoako Batukada.

13:00 Ondarbasoko igoeraren sari banaketa, Laranjadin.

14:15 Herri bazkaria, plazan, "Antton ao pobo - Etxera" herri ekimenak antolaturik. Bazkari kafearekin bertso saioari hasiera.

17:00 Bertso saioa, frontoian. Bertsolariak: Jon Maia, Miren Artetxe eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Imanol Artola.

Ondoren. Getaiko elektrotzaranga.

22:30 EH Sukarra + Lin Ton Taun. Foru plazan.

IRAILAK 3, IGANDEA

10:00 Idiakaitz txistulari taldearen diana.

12:30 Meza.

13:15 Herriko zaharrenei oroigarriak eskainiko zaizkie Foru plazan. Aurtengo omenduak Esperanza Benítez Doblado eta Pedro Igarataundi Unanue izango dira. Horiekin batera, herrian bizi diren 85 urteko guztiei omenaldia egingo zaie eta oroigarriak eskainiko zaizkie. Ekitaldia Idiakaitz Txistulari Taldeak eta Itxaropena dantza taldeak alaituko dute.


Ondoren, harri-jasotzaileak plazan: Lur Errekondo, Lierni Osa, Maddi Gesalaga eta Naroa Arruti.


14:30 Bazkaria Bainuetxean.

18:00 Zestoako XI. Trikitilari Gazteen Txapelketa, plazan. Antolatzailea: Zestuko Trikitixa kultur elkarte.



*Zestua'n zenbat izango dira?
Zazpi milla bizi lagun.
An bezin jende euskaltzalerik
bai ote da beste iñun?
Udazaliak etortzen dira,
oiek alare euskaldun;
aurrerantz ere al baldin bada
izkuntza maita dezagun.*





IRAILAK 7, OSTEGUNA



17:30 Ama Birjina bezperako meza.

19:00 Naroa Agirrek botako du txupinazoa, Pilotako Euskal Selektioko kideen izenean.
Eletrokela elektrotxaranga.

22:00 Istilu + Mehatxuka + Lizartxo erromeria.


IRAILAK 8, OSTIRALA. AMABIRJIN EGUNA

- 9:00** Zestoako dultzaineroen diana.
- 10:00** Idiakaitz txistulari taldearen diana.
- 11:00** Zestoako Musika Bandaren eta Idiakaitz Txistulari Taldearen kalejira, 'Goizekizarra' martxaren doinuekin.
- 11:00 -14:00** Hondarrezko eskulturen tailerra , Andoni Bastarrikarekin, frontoi zaharrear.
- 12:30** Meza.
Ondoren, udal ordezkarien dantzaurrea, Itxaropena dantza taldeak eta Idiakaitz txistulari taldeak lagunduta.
- 13:15** Zestoako Bandaren kontzertua.
- 17:30** Herriko bandaren, dultzaineroen eta txistularien kalejira, lehen zekorketa iragarritz.
- 18:00** Zirkokoloretsu ikuskizuna umeentzat, kultur etxe atarian.
- 18:00** Gurea Kultura ekimenak antolatuta zezenketen alternatiba kontzertuak estazio aldean: Inoiz Ez, Rodeo, Ezpalak.
- 18:00** Lehen zekorketa. Toreatzailea: Pedro Luis. Ordezkoa: Sergio García. Ganadutegia: Adolfo Rodriguez Montesinos (Oropesa, Toledo). Ondoren, Lopene ganadutegiko zezen bolaztatuak. Ondoren, Zestoako Banda Erdikalean.
- 19:30** Pilota partidak frontoi zaharrear: Goiuri Zabaleta – Naroa Agirre / Iera Iturriaga – Maite Mujika. Sasiain – Olaiz / Odriozola – Alonso
- 22:00** Willis Drummond + MICE + Dj Olber, Laranjadin.




IRAILAK 9, LARUNBATA.

- 10:00** Idiakaitz txistulari taldearen diana.
- 12:00** Jolas parkea umeentzat frontoi inguruan, 14:00ak arte.
- 12:30** Paella lehiaketarako prestaketak hasiko dira. Ustekabe txaranga egunean zehar.
- 14:30** Paella lehiaketako epaimahaia pasako da. Ondoren, herri bazkaria plazan.
- 16:30** Jolas parkea umeentzat, 19:30ak arte.
- 17:00** Kuadrillen arteko jolasak plazan, Ustekabe txarangak alaituta.
- 19:00** Ustekabe txartanga.
- 23:00** DJ Festa: Oliba & Antxoia + Albabarruna + HGS.



IRAILAK 10, IGANDEA.



(Umeak txuri gorritz janztera gonbidatzen ditugu)

- 9:00** Zestoako dultzaineroen diana.
- 10:00** Idiakaitez txistulari taldearen diana.
- 11:30** Umeen diana zaratatsua, plazatik hasita. (Ume bakoitzak ekarri dezala zarata ateratzeko zerbait: kazuela, danbor, turuta, txistu...).
- 12:00** Umeen txupinazoa. Ondoren, gaztetxoek dantzaurrea, zahagi-dantza eta buruhandiak, Idiakaitez txistulari taldeak lagunduta. Ustekabe txaranga goizean zehar.
- 12:30** Poniak umeentzat.
- 14:30** Ume, gaztetxo eta gurasoentzat bazkaria.
- 16:00** Haurrentzat tailerrak.
- 17:30** Herriko bandaren, dultzaineroen eta txistularien kalejira, bigarren zekorketa iragarritz.
- 17:30** XXIV. Arraza Libreko Artzain Txakurren Gipuzkoako Txapelketa, Zubiaurreko zelaian. Antolatzailea: Artxate elkarte.
- 18:00** Gurea Kultura ekimenak antolatuta zezenketen alternatiba kontzertuak estazio aldean: Arima, Sofa, Lukiek.
- 18:00** Bigarren zekorketa. Toreatzailea: Ruiz de Velasco Ordezkoa: Guillermo Alonso. Ganadutegia: Adolfo Rodriguez Montesinos (Oropesa, Toledo). Ondoren, Lopene ganadutegiko zezen bolaztatuak. Ondoren, Zestoako Banda Erdikalean.
- 19:00** Apar-festa, frontoi zaharrean. Ondoren, eta festei amaiera emateko, Zahagi-dantzarien dantzaurrea kalez kale, Itxaropena dantza taldea eta Zestuko Trikitixa taldearen eskutik.



FESTEN EGITARAUAREN FITXA TEKNIKOA

Argitaratzailea:

Zestoako Udala

Koordinazioa:

Zestoako Udala. Kultura Saila

Diseinua eta maketazioa:

Oihane Goikoetxea Larrañaga

Irudiak:

Danbolinzulo kultur elkarte

Inprimategia:

Antza (Lasarte-Oria)

Festa egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketako irabazlea eta, beraz, azalaren egilea:

Paula Nogales Sagarzazu

***Zestoako Udalak eskerrak eman nahi dizkie
festa hauen antolakuntzan parte hartu duten
edo/eta hartuko duten guztiei.***

Iranzu Gesalaga kalea 943 897 363	Surya Paz Marticorena Osteopatia - Kirol masajea Portale, 3 - 605 765 140
Txoko taberna Erdikalea, 3 943 147 196	Elorza janari-denda Gesalaga, 8 943 147 660

IRAILAK 2, LARUNBATA. GAZTE EGUNA

11:30 XXXVI. Ondarbasora Igoera. Subida a Ondarbaso
Eguerdi partean. Zestoako Batukada.

13:00 Ondarbasoko igoeraren sari banaketa, Laranjadin. Entrega de premios.

14:15 Herri bazkaria, plazan, "Antton ao pobo – Etxera". Comida popular a favor de la repatriación de Antton.

17:00 Bertso saioa, frontoian.

Ondoren, Getaiko elektrotxorongo.

22:30 EH Sukarra + Lin Ton Taun. Foru plazan.

IRAILAK 3, IGANDEA

10:00 Idiakaitz txistulari taldearen diana. Diana de chistularis.

12:30 Meza.

13:15 Herriko zaharrenei omenaldia. Homenaje a los mayores.

Ondoren, harri-jasotzaileak. Levantamiento de piedras.

14:30 Bazkaria. Comida.

18:00 Zestoako XI. Trikitilari Gazteen Txapelketa. Concurso de Trikitixa.

IRAILAK 7, OSTEGUNA

17:30 Ama Birjina bezperako meza. Misa.

19:00 Naroa Agirrek botako du txupinazoa. Chupinazo.
Eletrokela elektrotzaranga.

22:00 Istilu + Mehatxuka + Lizartxo erromeria.

IRAILAK 8, OSTIRALA. AMABIRJINA EGUNA

9:00 Zestoako dultzaineroen diana. Diana de dulzaineros.

10:00 Idiakaitz txistulari taldearen diana. Diana de chistularis.

11:00 Zestoako Musika Bandaren eta Idiakaitz Txistulari Taldearen kalejira. Pasacalles de la banda y chistularis.

11:00-14:00 Hondarrezko eskulturen tailerra. Taller de figuras de arena.

12:30 Meza Nagusia. Misa.

Ondoren, udal ordezkarien dantzaurrea. "Danza en cadena" de los/las representantes municipales.

13:15 Zestoako Bandaren kontzertua. Concierto de la banda.

17:30 Kalejira, lehen zekorketa iragarriz. Pasacalles, anunciando la primera novillada.



- 18:00 Zirkokoloretsu ikuskizuna umeentzat.** Teatro infantil.
- 18:00 Gurea Kultura ekimenak antolatuta zezenketen alternatiba kontzertuak.** Conciertos en la zona de la antigua estación.
- 18:00 Lehen zekorketa eta zezen bolaztatuak.** Primera novillada y toros embolados.
Ondoren, Zestoako Banda Erdikalean.
- 19:30 Pilota partidak frontoi zaharrear.** Partidos de pelota.
- 22:00 Willis Drummond + MICE + Dj Olber.**

IRAILAK 9, LARUNBATA

- 10:00 Idiakaitz txistulari taldearen diana.** Diana de chistularis.
- 12:00 Jolas parkea.** Parque infantil.
- 12:30 Paella lehiaketarako prestaketak. Ustekabe txaranga.** Preparativos para la paella. Charanga Ustekabe.
- 14:30 Herri bazkaria plazan.** Comida popular.
- 16:30 Jolas parkea.** Parque infantil.
- 17:00 Kuadrillen arteko jolasak. Ustekabe txaranga.** Juegos entre cuadrillas. Charanga Ustekabe.
- 19:00 Ustekabe txaranga.**
- 23:00 DJ Festa: Oliba & Antxoia + Albabarruna + HGS.**

IRAILAK 10, IGANDEA

(Umeak txuri gorritz janztera gonbidatzen ditugu)

- 9:00 Zestoako dultzaineroen diana.** Diana de dulzaineros.
- 10:00 Idiakaitz txistulari taldearen diana.** Diana de chistularis.
- 11:30 Umeen diana zaratatsua.** Ruidosa diana infantil.
- 12:00 Umeen txupinazoa eta gaztetxoan dantzaurrea.** Chupinazo y baile de cuerda infantil.
- 12:30 Poniak umeentzat. Ustekabe txaranga.** Ponis para chavales. Charanga Ustekabe.
- 14:30 Ume, gaztetxo eta gurasoentzat bazkaria.** Comida popular.
- 16:00 Haurrentzat tailerrak.** Talleres para niños-as.
- 17:30 Kalejira, bigarren zekorketa iragarritz.** Pasacalles, anunciando la segunda novillada.
- 17:30 Arraza Libreko Artzain Txakurren Gipuzkoako Txapelketa.** Concurso de Perros Pastores.
- 18:00 Gurea Kultura ekimenak antolatuta zezenketen alternatiba kontzertuak.** Conciertos en la zona de la antigua estación.
- 18:00 Bigarren zekorketa eta zezen bolaztatuak.** Segunda novillada y toros embolados.
Ondoren, Zestoako Banda Erdikalean.
- 19:00 Apar-festa.** Fiesta de espuma.
Ondoren, Zahagi-dantzarien dantzaurrea.